# Alkatearen AGURRA

*Udaleko Kultura Sailak urtero argitaratzen duen Hernani aldizkaria noiz argitaratuko zain egoten dira hernaniar asko. Izan ere, artikulu bilduma honen diseinuak eta edukiak gure iragan eta orainaldi hurbilena ezagutzeko bidea ematen digute, eta ezinbestekoa da beren inguruan gertatzen denaren berri izateko irrikitan dauden guztientzat.*

*Baina argitalpen honek ez du hernaniarren jakinmina bakarrik asetzen. Hernani aldizkariak gure historiaren "puzzlea" osatzen ere laguntzen digu. Edizio bakoitzean gure oroimen historikoaren zati bat jasotzen dugu, eta horrek gure burua hobeto ezagutzen laguntzen digu eta 1999. urtean Hernanin bizi garenon arteko elkar ulertzea eta integrazioa areagotzeko behar den konfidantza biziberritzen du.*

*Ez dut uste historiatik ikasi egin behar dugula esaten badut ezer berririk asmatzen ari naizenik. Gure iragana ongi eta gaizki egindako gauzak isladatzen dituen argazki-album bat da. Ezin ditugu iraganeko sepia koloreko argazkiak kalkatu, bizitzea tokatu zaigun orainaldiaren kolorearen grazia galduko luketelako. Baina, hartu beharreko bidea zein den gogorarazteko balio digute. Historiak herri oso baten lankidetzak eta elkarlanak komunitatearen eta hura osatzen duten pertsona guztien garapena bideratzen duela adierazten baitigu. Eta, aitzitik, ezinikusiak eta enfrentamentuek hondamena dakartela. Norbaitek esan ere esan du horrelako esaldi biribil batean:* "iragana gogoan izatea eta errespetatzea bizirik irauteko ezinbestekoa da gaur egungo deskalabru politikoan. Nolabaiteko etorkizuna izateko modu bakarra da".

*"Hernani" aldizkariak, aurten zortzigarren edizioa baitu, azaldu dudan horri dagokionez paper garrantzitsua jokatzen du. Gure oroimena berreraikitzen du, baina errealitate eta etorkizunerako egitasmo ere bada. Hori dela eta, berebiziko esanahia eta garrantzia du Udalak beste urte batez zuen eskura jartzen duen argitalpen plural honetara zentzuak eta adimena irekiak ditugula hurbiltzeak.*

**Rekondo Sanz,**
**Jose Antonio**
Hernaniko Alkatea

# SALUDO
## del Alcalde

*La publicación de la revista Hernani que edita anualmente el departamento de Cultura del Ayuntamiento se ha convertido en una cita esperada por muchos hernaniarras. Tanto su contenido como su diseño hacen de esta recopilación de artículos un encuentro con nuestro ayer y nuestro hoy más próximo, algo imprescindible para todos aquellos que sienten curiosidad por aquello que les rodea.*

*Pero, esta publicación no sólo satisface la curiosidad de los hernaniarras. La revista "Hernani" nos ayuda también a completar el "puzzle" de nuestra historia. En cada edición incorporamos un nuevo fragmento a nuestra memoria histórica que nos ayuda a conocernos mejor a nosotros mismos y reconstituye la confianza que necesitamos para una mayor integración y comprensión mutua de los que, en 1999, vivimos en Hernani.*

*No creo descubrir nada al afirmar que de la historia debemos aprender. Nuestro pasado es un album fotográfico que nos señala los errores y los aciertos. No podemos calcar las fotografías en sepia de ese ayer porque perderían la gracia del color, del hoy que nos toca vivir. Pero sí nos sirven para recordar qué camino no debemos elegir. La historia nos señala que la colaboración y el trabajo en común de todo un pueblo favorece el desarrollo no sólo de la comunidad sino también de los individuos que la integran. Mientras que el rencor y el enfrentamiento llevan al desastre. Hay quién ha llegado a decir con gran contundencia que* "la memoria y el respeto al pasado es un imperativo de supervivencia en el actual desastre político. Es la única posibilidad de tener alguna clase de futuro".

*La revista "Hernani" que cumple este año su octava edición asume un importante papel en ese sentido que he descrito. Es reconstrucción de nuestra memoria, aunque es también realidad y proyecto de futuro. De ahí el significado y la importancia de acercarnos con los sentidos y la mente abiertos a esta publicación plural que un año más el Ayuntamiento pone en vuestras manos.*

**Rekondo Sanz,**
**José Antonio**
Alcalde de Hernani